



Oiartzunen feminismoa sustatzeko edo parekidetasunerako proiektuak gauzatzeko

DIRU-LAGUNTZA OINARRI ZEHATZAK

1. XEDEA eta LEGE ARAUDIA.

1.1 Oinarrien helburuak

Oinarri hauen xedea da emakume-elkarteei, elkarte misto eta herriko eragileei zuzendutako diru laguntzak arautzea norgehiagoka prozedura bidez, Oiartzunen ikuspegi feminista eta parekidetasuna bultzatzea helburu duten ekintzak laguntzeko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko proiektuak edo ekintzak lagunduko dira, bereziki ondorengoak:

- Oiartzungo emakumeen elkartegintza eta parte hartzea sustatzeko herriko bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaren esparru guztietan.
- Sentsibilizazio eta dibulgazio jarduerak egiteko, tratu eta aukera berdintasunaren inguruan, emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideen sustapen eta defentsa alorrean.
- Emakumeenganako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen eskubideen defentsarako eta erreparazio sozial eta sinbolikorako.
- Kontzientzia feminista areagotzeko ekimenak.
- Parekidetasun balioetan eta jarretan hezteko ekintzak eta gizarteko sexu-genero rolen eraldaketa bultzatzeko.

1.2. Aplikatu beharreko araudia

Diru laguntza hauen arau markoa kontuan izango da, beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du, bereziki ondorengoak:

- Oiartzungo Udalaren diru laguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2018ko azaroaren 30eko GAOn argitaratua; eta bere aldaketa 2022ko irailaren 20an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua.
- 2022-2024rako Oiartzungo diru laguntzen Plan Estrategikoa.
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretua.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina.

2. AURREKONTUA.

Programa honen bidez deitutako diru-laguntzen zenbatekoa 7.000,00 eurokoa da, eta ondorengo diru atalaren kontura joango da: 1 0344.480.231.50.09 2025 DIRULAGUNTZAK:GENERO BERDINTASUNA.

3. HARTZAILEAK eta PARTE HARTZE BALDINTZAK.

Oiartzungo Ordenantza Orokorrean 2. Artikuluan zehazten duen moduan oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzak honako hauek eskatu ahal izango dituzte: egoitza edo ordezkari iraunkorra Oiartzunen



duten edo bere jarduerak iraunkorki bertan egiten dituzten pertsonak edo elkarteak eskuratu ahal izango dituzte diru laguntzak, bereziki emakume elkarte eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburua duten irabazi asmorik gabeko elkarteak.

Horiek guztiek diru-laguntzak eska ditzakete, nortasun juridikorik izan gabe ere, diru-laguntza hauek arautzen dituzten jarduerak aurrera emateko egoeran badaude, eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

Eskatzailea elkarte bat bada, honakoa eskatuko zaio:

- Indarrean dagoen legeriaren arabera eratuta eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egotea.
- Identifikazio Fiskaleko Kodea izatea.
- Egunean egotea zerga-betebeharretan.

Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatua edo ezabatua duten pertsonak edo erakundeak. Halaber, ezin izango dute diruz laguntzarik eskuratu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori galtzera zigortutakoek ere, edo Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 Artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenak.

Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor arloko zehapenak jaso dituzten pertsona edo fisiko nahiz juridikoei.

Emakume edo gizonen arteko berdintasun printzipioaren aurkako helburuak, sarbide sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bateginak eta Emakume eta gizonen benetako berdintasunari buruzko martxoaren 30eko 3/2007 Lege organikoan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko zein juridikoei.

Erakundeak, lekukotza judizialen bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezake onuradun izateko debekuetan sartuta ez dagoela. Agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordean, erantzukizunpeko aitorpena aurkez daiteke.

4. DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN PROIEKTUAK

Deialdi honetako xede dira ondoren azaltzen diren proiektuak:

Diruz laguntzeko modukoak izango dira 2025ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31a bitartean egingo diren jarduerak, ondorengo jardueretarako badira:

- Esparru guztietan gizonen eta emakumeen artean berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzen duten proiektuak.
- Emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideen inguruko sentsibilizazio, trebakuntza eta zabalkunde proiektuak.
- Emakumeen elkarte-sarea zein mugimendu feminista sendotzeko xedea duten proiektuak.
- Emakumeen ahalduntze pertsonala, soziopolitiko eta ekonomikoa sustatzeko jarduerak.
- Emakumeen egoera soziopolitikoari buruzko eztabaida eta hausnarketa sustatzen duten proiektuak, sareak sortzen lagunduz eta emakumeen kudeaketa eta zuzendaritza-gaitasuna garatzeko jarduerak sustatuz, botere-eremuetan eta erabakiak hartzeko eremuetan parte-hartzea bermatzeko.
- Emakumeen historia eta pentsamendu feminista ikertzeko eta berreskuratze proiektuak, eta emakumeen erreferentziak eta genealogiak sortzea eta zabaltzea sustatzen dutenak.



- Ezaugarri bereziak dituzten emakumeen kolektiboen bizi baldintzak hobetzera bideratutako proiektuak.
- Emakume elkarteen eta lankidetzak elkarteen arteko elkarlana eta esperientzia trukaketa aintzat hartzen duten proiektuak, betiere generoaren ikuspegitik denen artean programak eta ekintzak garatzeko.
- Sexu-genero rol eta estereotipoen nahiz horiek esparru pribatu eta publikoan emakumeen zein gizonezkoen bizitzan duten eraginaz sentsibilizatzeko eta horiek eraldatzeko jarduerak.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko informazio, sentsibilizazio, prebentzio eta erreparazio jarduerak.
- Berdintasunean gizonezkoen jarreraren eraldaketa bultzatzen duten ekintzak, maskulinitatearen deseraikitzeak.

5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO LEKUA.

Eskaerak Udaleko Egoitza Elektroikoan aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orriak erabilia. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak deialdia egiten duen organoari zuzenduko zaizkio, eta onuradunak edo hori ordezkatzeko duen pertsonak sinatu beharko ditu; eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Dirulaguntza eskaera orria bete eta sinatuta.
- Dirulaguntza proiektua: diruz laguntzea nahi den proiektuaren, jardueraren edo programaren azalpenarekin: helburuak, aurreikusten diren jarduerak, nori zuzenduta dagoen eta abar, jardueren gastuen eta sarreraren aurrekontua.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen dituzten ziurtagiriak.. Egiaztapena ordeztu ahal izango da erantzukizun aitortzearekin beti ere eskatzailea diru laguntzen udal ordenantzako 6.e. kasuetako batean baldin badago.
- **Laguntza lehen aldiz eskatzen dutenek, aurrekoek gain:** Eusko Jaurlaritzaren Elkartea eta Entitateen Erregistroaren izena emanda egotearen egiaztapenaren kopia eta Estatutuak.

6. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK.

Diru-laguntza eskaerak 10 egun naturaleko epean aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aurreko artikuluan deskribatutako agiriekin batera.

Eskaerak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar egun naturaleko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hutsak konpon ditzaten. Epea amaitu eta akatsak konpondu ez badituzte, eskaera bertan behera utziz dutela joko da, eta prozedura artxibatu egingo da.



7. BESTE DIRULAGUNTZEKIN BETARAGARRITASUNA

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek xede bererako eman ditzaketen dirulaguntzekin, beti ere Oiarzungo dirulaguntzen ordenantzan 14. Artikuluan finkatutakoari jarraiki. Ez dira bateragarriak Oiarzungo Udalaren beste dirulaguntza deialdiekin.

8. IZAPIDETZEAZ ARDURATZEN DEN SAILA

Oiarzungo Udal Dirulaguntzen ordenantzak IV. Tituluan jasotakoari jarraiki Berdintasun teknikariak eskariak izapidetuko ditu, dagokien txostena egin eta instrukzio organoak behar bezala arrazoitutako behin behineko ebazpen proposamena egingo du, interesatuei hamar eguneko epea eskainiz alegazioak aurkezteko. Prozeduran interesdunek argudiatutako beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik aurkezten ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan ebazpen proposamena behin betikoa izango da. Oiarzungo Udaleko Alkatea da prozedura hau ebazteko eskumena duen organoa.

9. DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GEHIENEZKO ZENBATEKOA

Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten eskaerak baztertu ondoren, puntuazio hori gainditzen dutenen artean, dirulaguntza horrela banatuko da: deialdi honetara bideratutako aurrekontu osoa zati proiektu edo diru-laguntza guztiei esleitutako puntuen baturak, puntu bakoitzaren balioa finkatuko du. Puntu bati dagokion balioak, proiektu bakoitza baloratzeko erabilitako puntuekin biderkatuta, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko du. Lortutako puntuen arabera kalkulaturako kopurua eskatutako diru-laguntza baino handiagoa bada, aldea kenduko da.

Proiektuaren kostuaren % 100 ordainduko daiteke eta eskaera bakoitzak gehienez ere 2500 euroko diru-laguntza jasoko du.

10. ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Ondorengo irizpideen arabera:

IRIZPIDEAK	GEHIENEZKO PUNTUAZIOA
Proiektuaren kalitate teknikoa	20
Ikuspegi intersektionala kontuan hartzen duten egitasmoak: arraza, adina, inmigrazioa, sexu eta edo genero identitate edo adierazpena, aniztasun funtzionala, pobrezia eta edo gizarte bazterketa.	10
Proiektuak genero ikuspegia izatea	10
Emakume* elkarte batek aurkeztutako proiektua izatea	10
LGTBIQ+ pertsonen jabeakuntza xedea izatea	10
Emakumeen* ahalduntzea, salaketa eta aldarrikapen ekintzak	5
Elkarteak erakutsitako ibilbidea, jarraikortasuna, egonkortasuna eta dedikazioa	5
Emakumeen eskubideak, historia eta pentsamendu feminista hedatzea helburu duten proiektuak, baita emakumeen erreferentzia eta genealogia sortzen dutenak.	5
Ikuspegi eta xede hezikidetzailerak duten jarduerak	10
Emakumeen kontrako indarkeria prebentzio eta erreparazio jarduerak	10
Berdintasunean gizonen parte hartzea sustatzen duten egitasmoak	5
PUNTUAK GUZTIRA	100



Diru-laguntza jasoko badute, gehieneko puntuazioaren 50 puntu lortu beharko dute aurkezten diren proiektuek gutxienez, aurreko irizpideen arabera. Programa honetarako diru-laguntzaren zenbatekoa zatituko da elkarteei esleitutako puntu guztiekin (hemen zehazten diren balorazio adierazleen arabera), eta horrela puntu bakoitzaren balio ekonomikoa kalkulatu da. Balio ekonomikoa hori bider elkartek lortzen dituen puntuak egin, eta horrek adieraziko du diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa.

11. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunek, Oiartzungo Udal Ordenantzak ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, eta beste ataletan aipatutakoaz gain ondorengo hauek:

- 1) Diru-laguntzen helburua bete, proiektua gauzatu edo eta jarduera egin.
- 2) Oiartzungo udalari justifikatzea bete direla diru-laguntza emateko edo baliatzeko behar diren betekizunak eta baldintzak.
- 3) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.
- 4) Diru-laguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- 5) Organo emaileari, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotatik diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana jakinarazi.
- 6) Hala badagokio, diru-laguntza itzultzea, oinari-arau hauetan xedatutakoaren arabera.
- 7) Diruz lagundutako jarduera betetzeko beharrezko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- 8) Pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatzea, jarduerak dirauen bitartean.
- 9) Diruz lagundutako jarduerak edozein delarik ere, antolatzaileak betebeharrak izango ditu:
 - a) Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Halaber, ekitaldi zehaztuta megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebeharrak hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.
 - b) Diruz lagundutako edozein jardueraren antolatzaileak idatziz, ahoz edo irudi bidez eginiko iragarki guztietan Oiartzungo Udalen laguntzaren berri eman beharko du, haren logotipoa txertatuz (ad.: weba, kartelak...).
- 10) Oiartzungo Udalen dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 9. artikulua ezartzen dituen ingurumen irizpideak bete beharko dituzte.

12. JUSTIFIKATZEKO EPEA eta MODUA.

Diru-laguntza justifikatzeko, elkarte edo pertsona onuradunak Oiartzungo udaletxean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du 2025ko abenduak 12a aurretik, ondoren zehazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu:

- a) Jardueraren justifikazio memoria. Bertan jardueraren zehaztasunak azaldu beharko dira:
 - Noiz eta non egin den.



- Parte hartzea nolakoa izan den.
- Ondorioak, eginiko ebaluazioa.
- Dokumentazio grafikoa edo/eta ikus-entzunezkoa balego (kartelak, argazkiak...)

b) Memoria ekonomikoa

- Izandako diru -sarreraren eta gastuen balantze orokorra.
- Ekintzen gastuak osotara justifikatzen dituzten jatorrizko fakturak.
- Faktura guztien zerrenda aurkeztuko da.
- Helburu berberarekin elkarteak beste erakunde batzuei eskaturiko dirulaguntzen zerrenda (eskatutakoa, ebatzeko daudenak eta ebatziak).

Diru-laguntzen guztizko kopuruak, bakarrik edota beste diru-sarrerekin batera, ez du onuradunak garatu beharreko jardueraren kostea gaindituko. Horrela gertatuko balitz, jasotako gehiegizko diru kopurua itzuli beharko luke entitateak gehienez ere 60 eguneko epean.

13. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Oinarri orokorretan xedatutako epeetan eta eran ordainduko da diru-laguntza. Diru-laguntza ematea onartu ondoren, ordainketa era honetan gauzatuko da: Oiartzungo udaletxean eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntzaren % 100.

14. XEDAPEN GEHIGARRIA

Oinarri-arau espezifiko hauetan berariaz jasotzen ez diren gai guztietan, deialdiaren oinarri-arau orokorretan xedatutakoari eta gainontzeko lege xedapenei jarraituko zaie jarraituko zaio.